

Hizlaria

Santiago Larrazabal

Deustuko Eusko Ikaskuntzen Institutuko
Zuzendaria eta Konstituzio Zuzenbide
irakaslea.

*“Irakasleok
gizalegearen
irakasgaiaren
falta
nabaritzen
dugu”*

HEZKUNTZA

Hezkuntza gaia baliozkotzeko orduan, Deustuko Unibertsitatean Konstituzio-Zuzenbide Irakaslea eta Euskal Gaien Institutuko Zuzendaria den Santiago Larrazabalek lagundu zigun. Gainera, berak aitortu zigun nola guk uste baino lotuago dagoen gure herriarekin, zeren aitaren aldeko familia Aretakoa duen. Hori zela eta, Santiagok esan zuen oso eroso sentitzen dela Laudion, nahiz eta bilbotarra izan.

Gonbidatuak Laudioko Oroimen Kolektiboaren lana goraiatu zuen, bere ustez mota honetako ekimenak oso garrantzitsuak dira herri guztiek euren memoria berreskura dezaten. Bere aburuz, iragana ezagutzea etorkizuna prestatzeko bide onena da, are gehiago, herritarren laguntzarekin egin den lan honetan.

Santiagoren hizketaldia arina eta atsegina izan zen. Santiago eta bertaratu zirenen arteko eztabaida piztu zen, gaur egungo hezkuntzari buruzko ideia asko sortu zirelarik; irakurtzeko ohituraren galera, ahalegina eta lanaren garrantziaren igorpen eza, balioen galtzea...

Hezitzea ez da soilik ezagutzak igortzea, hauek ondo ulertuak eta bereganatuak izan behar dute. Era berean, gazteen norberekeriarenganako kezka nabarmendu zen, baliteke, gizartearen garapen azkarraren ondorioetako bat izatea, aldaketak ez dira ondo igorri.

Iraganean erabiltzen ziren metodologiaren sormenezko izaera azpimarratu zen, Manjón metodoa edota Doña Mercedesek matematikak *“ikusarazteko”* erabiltzen zuena, besteak beste. Bestalde, Bolonia Planari buruz eztabaidatu zen: eginkizun aldaketa sakonak ekarriko ditu, irakaslea ez da izango hezkuntza prozesuaren ardatza, ikaslea baizik. Irakasleak zuzendua, ikaslea bere kabuz lan egin beharko du.